

Kalakan musika taldeak idekiko du Astigarragako sagardo denboraldia

Argitaratua: oraintxe

Madonnarekin "sagarra jo" ondoren, Kalakan musika taldeak sagarrak dastatuko ditu, edo zuzenagoa izateko, sagardo berria. Gaur eguerditan, Kalakanek Astigarragako sagardo denboraldia idekiko du, eta hogeita batgarren edizioarentzat, Astigarragako Alorrenea sagardotegian egingen da idekidura ofiziala. Denboraldiko lehen aldiz "txotx" esan aintzin, urtero egiten den bezala, Sagardoetxea Museoa sagarrondo bat landatua izan da. Ondotik, Madonnarekin biran ibili zen euskal taldeak "**Gure Sagardo Berria**" bere kantua aurkeztuko du Alorrenean. Kalakanekin batera, Astigarragako auzapeza den Andoni Gartzia 2013 urteko uztaren berri emanen du, sagardoaren kalitateak zein diren aurkeztuko ditu eta sagardoaren inguruan gertakari garrantzitsuenak zein izan diren aipatuko ditu. 18:00etatik 20:00etara Astigarragako tabernetan "pintxotx" ekimena antolatuko da, eta ondoren, herriko elkarteek sagardotegietan afalduko dute. Denboraldiaren idekiduraren kariatara, Ipar Euskal Herriko hirukote musikariari elkarrizketa egingen diote **Info7 irratiko** kideek, gaur goizean, 11:00etan. Aurten, sagardo denboraldia **apirileko azken egunean bukatuko** da.

Lesakan ostiralean hasi zen sagardo denboraldia ([Lindduren Borda sagardotegian egindako bideoa](#)) eta Hermanin igandean egin dute txotxaren irekiera. Ipar Euskal Herriari doakionez, Azakingo Txopinondo sagardotegiak otsailaren 1ean idekiko ditu sagardo berriaren upelak, 20:00etan.

Iaz, Astigarragako sagardo denboraldia La Oreja de Van Gogh musika taldeak ideki zuen, eta 2012an Julian Iantzi telebista animatzaileak. Azken urteetan, 2011an Karlos Argiñano sukaldariak, 2010ean Errealeko futbolariak, 2009ean Aimar Olaizola pilotariak, 2008an Andoni Luis Aduriz sukaldariak, 2007an Juan Martinez de Irujo pilotariak, 2006an Jose Luis Korta arraunlari ohiak eta 2005ean Ainhoa Arteta musika klasiko kantariak ukan zuten sagardo berria dastatzeko pribilegioa.

Otsailaren 22an, Oreka TX musika taldearekin eta Kukai dantza konpainiarekin "[Herritmo](#)" [ikusgarria](#) emanen du Kalakanek Baionako antzokian.



Jamixel Bereau, Xan Errotabehere eta Thierry Biscary, Kalakan taldea osatzen duen hirukoteak dastatuko du Astigarragako sagardo berria. Argazkia Gaizka IROZ

bideoa



Urtarrilaren 11an Bilboko karriketan 130.000 pertsona bildu zituen manifestazioaren laburpena egiten duen bideo honetan milaka pertsonen imaginekin batera bertan parte hartu zuten eragileen adierazpenak ere entzun daitezke. "Giza eskubideak, konponbidea, bakea" lelopean EH Bildu eta EAJ alderdietako jarraitzaileak elkartu dira, ELA eta LAB sindikatuekin batera eginiko deialdian.

Youtube



8+

0

Komentarioak

Komentarioa idatzi

IZENA (beharrezkoa)

E-MAIL (ez da publikatuko) (beharrezkoa)

Webgunea

Zenbat da hiru gehi lau?

Bidali